


A T Z O K O
Ardorian

5. zbk.

1999ko maiatzaren 30a.



eta andoaindarrak
**ando
ainda
rrak**

Auzoak

AUZOKOAK BETI AUZOTAR

Andoaingo udalerrria lau auzotan dago banatuta: Sorabilla, Goiburu, Leizotz eta Buruntza. Mendialdeko horiek alde batera utzita, ordea, kaleko auzuneei erreparatu diegu guk: batipat, Kaletxiki, Bastero, Zumea eta Buruntzari. Ez dugu ahaztu, ez, Karrikakoek ere euren auzoa bazela defenditzen zutela beti, Etxeberrietatik berezi egiten zutela euren burua. Inor gutxietsi gabe, ordea, auzo nagusiak, aipatutako horiexek direla azpimarratu nahi izan dute gure koadrila honetako kideek.

Kontutan hartzekoa da, Joxemari Olazabalek ondo zehaztu duenez, Goikoplaza inguruan, garai batean, kalerik ez zela. "Orduan plaza besterik ez zen. Eliza, udaletxea, Urigain jauregia, Elixondo eta Una-

nueko etxeak eta Hegoabil eta Arrate baserriak baino ez. Handik hasi eta Bazkardoraino etxe bakarra zegoen: Sagarmendi".

Herriko auzoek, garai batean izaera berezi-berezia zuten, gaur egun ia osotara galdua dagoena. Ondo bereizten ziren auzo bakoitzaren mugak eta batez ere bertako auzotarrak. Handik honerakoak borrokazaleak zirela, handik harakoak, berriz, adar jotzaileak... Auzoen artean lehiakortasun handia zegoen gainera, eta maiz elkarren kontra ere jarduten zuten nagusitasuna lortu nahian.

Horiek guzti-guztiak gogora ekarri edota lehen aldiz ezagutu nahi badituzu jarraitu itzazu, adi, hila-bete honetan bildu ditugunak.

ETXEBERRIETA

Etxeberrieta da, Andoaingo auzo guztien artean, gutxien aldatu den ingurua. Erreka aldera zegoen futbol zelaia eta haren inguruan Barria eta Olasagastitarren baserria; gero, Subijanakako lantegia. Auzoaren bihotza, ordea, errepidearen beste aldean zegoen; Zipitrianean hasten den etxe sail luzeak osatzen zuen auzoa. Etxe horiek denak bere horretan daude oraindik ere.



Etxeberrieta Etxe Urdina zegoen lekutik hartutako irudian. EMILIO TRUCHUELO

Etxeek sarrera nagusia zuten aurrekaldetik baina guztiek bazuten beste ate bat atzekaldera. Komuna, garai hartan behintzat, eskilaretan izaten zuten bizilagunek, eta maiz Etxeberrietara futbola ikustera joandakoek hara jotzen zuten, Mirenek kontatu digunez: "Konturatzen ginen 'Hara! orain ere bada norbait komunean' baina joan orduko ospa egiten zuten atzeko atetik!"

Atzekalderik, dena den, ez zuen auzoak orain duen moduan. "Etxeberrietako etxeen atzekaldean zegoen labaderoa eta errekatxo bat, Miranda erreka", gogoratu du Miren Zarragak.

"Eta kontatu, kontatu Miren, atzekalde horretan zer gehiago zegoen", zirikatu dio Joxemari Amutxastegik. Mirenek erantzun aurretik, ordea, Joxemari berak ekin dio kontakizunari: "Han zegoen denetarik. Izaten ziren tomateak, izaten ziren bainak, izaten ziren koliflorak, izaten ziren azak, izaten ziren letxuk, oiloak, oilaskoak, akurik, erbiak..." Estraperlo garaiak gogora ekarri nahi izan ditu horrela Joxemari: "Klaro! tren karrila ondoan baitzegoen... eta gero kaletik atzekaldekorik ikusten ez zenez..."



Joxemari Amutxastegi

"Klaro! tren karrila ondoan zegoen eta gero kaletik atzekaldekorik ikusten ez zenez.... estraperlo garaietan han edukitzen zuten denetatik."

Etxeberrietan ere bazegoen makina bat taberna eta denda, Joxemari Amutxastegik gogoratu duenez. "Subi-

jananeko ondoan Mariano Kuxkulturena; beherago Largonekoa esaten zioten denda hura... " Miren Zarragak, baina, denda Keperinek orain gutxirarte eduki duen hori bera ezagutu du bizitza guztian. Bazegoen, baita ere, Cooperatiba Sociedad Anonima, Subijanak irekitakoa.

Etxeberrietako eskolak egiten zuen auzoaren muga. Handik aurrera zeuden etxeak Karrikakoak ziren: "Karrikako errota, Karrilia ñarroak konpotzen zituzten bertan- Asindegi base- rria, Itsuaren baserria eta Iztuitza torrea, horiek ziren etxe nagusiak", gogoratu dute denek artean.



Etxeberrietako 3. ataria.

ETXEBERRITARRAK

Etxeberritarrak nolakoak ziren? "Etxeberrietakoak mundialak beti!", dio Joxemari Olazabalek. Auzo hartakoak beti izan dute herrian bihurri fama eta Miren Zarragak izena eta izana bat zetozela aitortu digu: "Hala ginen gu, bihurri hutsak. Adunakoak Andoainera eskolara etortzen zire-



Miren Zarraga

Hala ginen gu, bihurri hutsak. Adunakoak Andoainera eskolara etortzen zirenean beldurrez egoten ziren Etxeberrietatik pasa behar zutela eta; harrikoa eta guzti egiten genien..."

nean beldurrez egoten ziren Etxeberrietatik pasa behar zutela eta; harrikoa eta guzti egiten genien..."

"Makina bat aldiz", gogoratu du Joxemari Amutxastegik, "erre izan dizkigute Etxeberrietakoek San Juan sutarako bildutako sasiak. Goiz batean altxa eta denak kiskalita! eta klaro, beti Etxeberrietakoak kulpa!"

Iñaki Arregik zehaztu duenez, San Juan suaren kontura sekulako ikamika izaten zen auzotarren artean. "Igoal hasten ginen hiru hilabete bat lehenago lekua egokitzen, larrak bildu, egurra eta kartoiak pilatzen... Lehia izaten zen zein auzotako mutikoez pila haundiagoa egin... Eta behin baino gehiagotan elkarri erre", kontatu digu. "Garbi-garbi gogoratzen naiz", jarraitu du, "nola behin Etxeberrietara joan ginen limonada botelile-

tan gasolina hartuta, haiek hustu, pilari su eman eta harro-harro buelta etxera!"

"Bai, baina hala eta guztiz ere, su pilarik handienak eta ederrenak beti Zumeakoek egiten zituzten e", ohartarazi dio segidan Joxemari Amutxastegik.

Gaiztakeri horietan denetan aritzeko auzo bakoitzak bazuen bere jefea. Etxeberrietan Keperin Ganza-rain eta Patricio Zabala omen ziren buruzagiak, eta Mirenek gogoratu duenez, haren parean ibiltzen zen askotan Juan Joxe Potxolo ere.

"Ez dakit haiek izan ziren edo ez...; baina pentsa Etxeberrietan zein bihurriak ziren, behin Asindegiko bueltan, trenbidean buruhaundi eta erraldoi bana jarri zituztela gurutzatuta. Eta klaro, trenak gelditu egin behar..."

ZUMEA

Txitibarretik hasi eta zubietarainoko tartea hartzen zuen auzoak. Kaleberria, Zumea eta Angurasutegi kaleetan biltzen ziren orduko etxeak ñorain gutxi arte ez bezala, orduan Angusategi izenaz ezagutzen zuten herritar guztiak kale hurra-. Kaleberrietik Santakrutzerainoko tarte hori dena soroz beteta zegoen.

Joxemari Amutxastegik, bertako semea izanik, ondo gogoan ditu hango guztiak. Hara nola egin duen kontaktuzuna etxez etxe. "Zubitik hartuntza goazela, aurrena, Perikoneko sagardotegia; gero Angurasutegi kalea pasa eta Exekielenea taberna (orain Leitz bizikleta denda dagoen lekuan), eta haruntzago, Gabinoren harategia. Haren ondoan zegoen Begiristainen sagardotegia eta hurrena Artolanea, Banco Guipuzcoano eraiki aurretik

zegoen etxea. Hangoek zuten janari denda haundi eta eder bat".

Banco Guipuzcoanotik Santakrutzerako buelta hartuta lehenengo etxea zen Maindikoa; han ere janari denda zuten. Joxemari dioenez, Andoainen ez da hori beste etxerik izan halako kategoriko jendea atera duenik. "Seme zaharrena medikua, bestea ejerzitoko koronela, bestea



Joxemari Amutxastegi

"Maindiko ondoan, Centro Obreron. egiten omen zituzten bekatu izugarriak 'al agarrao' dantzatzen zutelako".

abokatua eta bestea kano-nigoa. Herria manejatzeko bazituzten ofizio guztiak". Iturritik abiatuta hurrena zen Centro Obrero, Xekoren etxean, Lukrexik gero sagardotegia eduki zuen hartantxe. "Han bekatu ikaragarriak egiten omen zituzten igande arratsaldetan-eta 'al agarrao' dantzatzen zutelako. 'La-la-la-ra esta cachonda! la-la-la-ra ay Tomasa!', gogoratzen naiz nola abes-

ten zuten. Centro Obrerotik aurrera gero zegoen, Axintxioenea konfiteria. "Zer goxoak egiten zituzten han!" gogoratu du Loren Navarrok, "pastelak-eta ziren eder-ederrak!"

Hurrengo etxea zen Escuderorena. Hango andreak, Pilarrek, zuen jostundegia eta Felipe senarrak, berriz, zapatak konpontzen zituen. Gero, etxe sail haren izkinean zegoen Joxepa arrantzalearen denda txikia. Segidan zegoen Angurasutegiko karkaba. Hura pasata, Axintxioneko eskola, Bittor Barandiaran-eta bizi zen etxea, eta hurrena, Kaxilio-eta bizi zirena. Ermita baino lehenago, berriz, Alonsoeko pasteleria.

Goazen orain, Etxeberrietara bidean, erreka aldeko etxeak gogoratzea. Orain Ernaitza dagoen lekuan zegoen etxe txiki bat, eta haren segidan, Olajauna, inguruko etxe inportanteena. Orain gutxi arte drogeria egon den horretan, berriz, Banco Guipuzcoano egon zen pareko etxe berria eraiki aurretik. Gero bodega, orain Uranga dagoen horretan bertan, eta gero Amutxastegitarren euren etxea. Eta haren parean gasolinera. "Makina bat komeria eduki zituen gure aitak tranbiaren karrilak han baitzeuden eta automobil bat gasolinera geratu eta atzetik tranbia etortzen bazen...", kontatu du Joxemari.

Aurrerago Artolaren etxea, Juan Krux Amiano barberoa. Aminotarrek



Artolanea, Banco Guipuzcoano eraiki aurretik Zumea eta Kaleberriko bidegurutzean zegoen etxea.



Tranbia berrien bedeinkazioa Zumeako zentrala zenaren parean.



Loren Navarro

"Niceto Alcalá Zamora II. Errepublikako lehendakaria Andoaingo Centro Republicanora etorri zen behin. Gogoratzen naiz Alonsoneko Nievesek eman zizkiola loreak".

egiten zituzten alpargatak. Amiano pasa eta zegoen karkaba eta han Pello Ugaldek zeukan harotz tailerra. Gero aurrerago zegoen Gaxpar Elizondoren denda ñinguruko esneak bildu eta kalean partitzen zuen gero- eta gero Ramonaren fonda. Haren segidan Planttanekoen denda; handik hurruna. Olanoren panaderia. Haren segidan, berriz, garai batean egon zen Centro Republicano. Loren Navarrok ondo gogoan du nola Niceto Alcalá Zamora II. Errepublikako Lehendakaria Andoainera etorri zen behin. "Alonsoneko Nievesek eman zizkion loreak, bai". Hura egun handia izan zela gehitu du Joxemari Amutxastegik. "Andoaingo banda Errepublikaren aldeko abestiak jotzen hantxe egon zen: 'si los curas y frailes supieran lo bien que iban a pasar; subirlan al coro cantando: Libertad! libertad! libertad! Qué religión es esta que contra Cristo va; los curas son carlistas y el papa liberal!...'"; hasi dira edadetuenak abesten orduan kantatutakoa gogora ekarrita. Centro republicano hura, noski, gerra lehertzearekin batera itxi behar izan zuten. Gerra

ostean, Auxilio social-aren egoitza bihurtu zen.

Centro carlistaren ondoren zegoen beste taberna bat, Illarreginea. Etxe sail hura bukatuta haruntza zegoen Miranda baserria, orain Zumeako etxe haundi horiek dauden lekuan. "Baserri hartakoei loteria egokitu edo herentziren bat jaso zuten eta gero txaleta egin zuten, txalet elegantea oso! Villa Bidaor. Automobila ere garai hartan erosi zuten", esan digu Lorenek. Hurrengo etxea zen **N o t r e D a m e k o m o n j e n a**, orain gutxi arte Etxe urdina izan den horretan.

Karrete-raren beste **a l d e r a**, berriz, Txiti-

bar baserria eta haren ondoan Txiti-bar txiki. Eta segidan, tranbiaren zentrala, orain Zumeako futbol zelaia dagoen leku horretan bertan. Kotxerak han zeuden eta matxuratu-tako guztiak ere han konpontzen zituzten.

Handik zubi aldera gatzela gero zegoen Ariztimuñoren etxe txiki hura, Julian Ederraren fruteria, Ekerranea eta baratzak.



Zumea kalea. Amianotarren barberia ikusten da eskubiko etxean. SECUNDINO ETXEBERRIA

ZUMEBARRAK

Zumeakoak beti diplomatikoak izan dira, Joxemari Amutxastegik harro gogoratu duenez. Bilerako beste batzuek leporatu diete beti Etxeberrietakoekin aliatzen zirela, Ramon Olano eta Joxe Kapoia-eta buru zituztela. Halakorik, baina, ez du onartu Joxemarik. "Gu diplomatikoak ginuan, gu beti denen artean bakeak egiten...", azpimarratu du.

Diplomatikoaz gain, festa eta parrandazaleak ere baziren nonbait. Inguruko sagardotegi eta tarbernetan kantuan eta juergan maiz ibiltzen ziren gazteak; eta egokiera



Joxemari Amutxastegi

"Gu diplomatikoak ginuan, gu beti denen artean bakeak egiten..."

horretarako auzoko leku eta jendearekin osatu zuten euren abesti berezkoa ere. Hara: (Kantuan agertzen diren izen guztiak zumeatarren ezizenak dira).

Erbia gisatuta kapoia erreta xoxua ez da txarra mantekaz beteta Gabrielelek kitarra jota Manuelek tronpeta Xeko dantzan jarrita horra nahiko festa

BASTERO

Auzoari izena etxe batek eman zion. Orain gutxi arte Inok estankoa eduki duen etxe zahar horrexek, hain zuzen ere. Bastero etxea zen hura eta hortik izena. Nolanahi ere, inguru hori baino askoz ere eremu zabala goa hartzen zuten mugek. Auzo horretako gure solaskideek gogoratu dutenez, etxe horretatik Bekoplazarako tartea hartzen zuen auzoak: Nagusia, Eskola kalea eta Berria. Gokoplazatik beherakoek, Basterorako joera zuten gainera.

Orain mende erditik hona auzoa asko aldatu da, baina gure solaskideek ondo gogoan dute euren gazte garaian kale bakoitzean zer zegoen, zein bizi zen etxe bakoitzean eta zein denda edo almazen zegoen etxepa bakoitzean. Hara hemen kontakizuna:

Eskola kalean Bastero etxea bera zegoen eta haren segidan Brunoren etxea, orain BBV dagoen horretan. Handik Kale Nagusia bueltan, berriz, Arrutiren etxea –orain botatzear duten etxe hori-. Handik behera, Alondegia eta haren goian eskolak. Gero Doña Juanitaren etxea. Loren Navarrok kontatu digunez, "etxe hark atzean zuen lantokia; telak egingen zituzten han eta haren ondoan denda, maindireak-eta saltzeko zuten denda". Haren segidan, berriz, arkupeetako etxea zegoen. Han bazen harategi bat eta 1933tik 1941ra Lasalletarren eskola ere bai. Denbora tarte luzean, gainera, arkupe hartan egin izan zen herriko asteroko azoka.

Arkupeetako etxeen ostean zegoen Ikutzatarren etxea; han egoten zen

Xara jostuna. Ondoko etxean ere, Arrutinean, jostea zuten lanbidea, bereziki, alkandorak jostea; "con cuello duro y todo", gogoratu du Iñaki Arregik. Orain etxe berria eginda dagoen horretan Irazutarrek zuten janari denda. "Dena ona zen. Egiten zituzten goxoki oso onak", dio Loren Navarrok. "Kandelak ere bai", gaineratu dio Joxemari Olazabalek. Irazutarren etxearen ondoan, okiñenatarrek ere bazuten denda eta goian zuten kontsulta medikuak eta albaitariak.

Peña Satakruzteko sarre horretan Pepe Andoainek denda eduki zuen eta haren ondoan zegoen Joxerramoneneko taberna. Gero, hura pasata, beste lokal bat, Liberto Zatarainek automobilaren garaje bezala erabiltzen zuena. Libertok eta horiek ere bazuten denda, 'Malentxunea' deitzen zitzaiona. Orain Esther arropa denda dagoen horretan etxebitzak zeuden eta etxepean gero Romerok sastreria jarri zuen. Hurrengo zen, berriz, Estanix Fernandezen libreria, eta, azkenik, zataraindaren etxean, apaiz estudianteen eskola izan zena garai batean.

Kale Nagusian bueltan, berriz, Subijanaren kooperatiba egon zen (orain Leizaur denda dagoen lekuan), Arregitarren harategia segidan, eta gero baratzak. Orain eskilarak dauden lekutik aurrera, berriz, etxebitz-



Iparragirre zinema Kale Nagusian. Aurrez Cine Luminoso izan zen. EMILIO TRUCHUELO



Loren Navarro

"Republika garaian eduki zuen gure aitak gasolindegia. Baina leku txarra zela-eta utzi egin zuen aitak. Izan ere, Donostia bidean hantxe gelditzen zen tranbia eta autoek ezin izaten zuten gasolina hartu".



Kaleberria, orain Kutxa dagoen lekutik ikusita. Eskuinean, Brunoren etxea zena. MOISES

zak: Edotarrak, Galarzatarrak... Gero Pantxikaren jostundegia, alkaindarraren etxea... eta sagardotegia kantoi berrian –Okiñenatarrek garaje gisa erabiltzen duten hura bera zen sagardotegia-, Iparragirretarren etxea eta, izkinean, Kinkileria. Kinkilak saltzen zituzten ferreteri antzeko bat zen hura eta handik izena. "Orduan zegoen bezalakoxea, igoal-igoala dago orain etxea", dio Joxemari Amutxastegik. Eta haren segidan, berriz, aurrena Cine Luminoso izan zena, gero Iparragirre bihurtua.

Karkabako bidean zegoen Lasalleko fraileen etxea, Allendegi. Haren atzekaldean Jorge, Justo Laboralekoan aitak, izan zuen zerrategia. Haren ondoan, orain Euskalduna Mendigo-

zale taldeak egoitza duten horretan, berriz, Gabriel Aizpuru aiarraren sagardotegia.


"Kale Nagusian gora, berriz ere", jarraitu du Iñaki Arregik kontakizunean, "Toledoneko etxea zegoen (orain Eguzki taberna dagoen hori bera). Haren ostean zen gure etxea, eta etxabea amaren denda". Hurruna (orain harategia dagoen leku horretan) zen kanto zaharra, irazutarrena, eta han jarri zuten denda solidarioek (orduko ELA sindikatuak). Gero panaderia eta Lorenen etxea, Juanito barberoarena. Han ondoan gasolindegia zuen Juanitok. "Republika garaian eduki zuen gure aitak gasolindegia", kontatu digu Loren Navarrok. "Baina leku txarra zela-eta utzi egin zuen aitak. Izan ere, Donostia bidean hantxe gelditzen zen tranbia eta autoek ezin izaten zuten gasolina hartu".

Lorenen etxearen hurrengo etxea zen Kutxak egin zuena, gerra garaian eraikitakoa (orain Orkatz gozotegia dagoen hori). Gero Inaxionea (lehenengo bizitza batzokia izan zen gerra lehertu arte), gero artanonekoak eta

haien komestible denda. Haren ondolik alkattenekoak, goñitarrak eta huizitarrak bizi ziren etxea. "Gaur egun Arizetak bere tailerra duen lekutik Trianonerainoko tarte hori guztia soroak ziren, eta han zuten Moledakoek etxe bat", kontatu digu Iñaki Arregik. Trianoneko etxea aintzina kasino inportantea izan zen

nonbait, eta gero Luciano Pastorrek eduki zuen destileria antzeko bat. Gerra Zibilaz gero bota zuten etxe elegante hura.

Trenbidea dagoen alde horretan ere Jauregi baserria eta Villa Argenti-na (Juan Bta. Erroko bidegurutzean zegoen etxe elegante) besterik ez ziren.



Kaleberria, Jauregi baserriaren ondotik hartutako irudi zahar batean.

BASTEROTARRAK:

Gure mahaiaren bueltan eseritzen diren basterotarrak planta honeko gizon-emakumeak dira, ustez guztiz zintzoak. Ez pentsa, baina, gazte garaietan halakoak zirenik, ez. Basterokoak, gerrazaleak izan omen dira beti, aizue.



Miguel Amas

"Basteron ziren jefek Martin Arregi, -Martin Zapatero'- eta Martin Ondarreta"

"Basteron ziren jefek Martin Arregi, -Martin Zapatero'- eta Martin Ondarreta", hasi da kontakizunean Miguel Amas. Iñaki Arregiren gogoan denez, Ondarretako semea baserriko lanetan-eta asko ibiltzen

zenez, jolas gutxi egiten zuen Basteroko auzokideekin. Etxeberritarren kontra-edo gerra egiten zutenean, ordea, orduan dudarik gabe biltzen zen haiengana. "Martin Ondarreta handi-handia zen, eta guk denak txiki-txikiak. Hura, bada, aurrean jartzen zen, eta denak harro-harro joaten ginen Etxeberritarren borrokatzera", ekarri du gogora Iñaki Arregik.

"Eta Etxeberritarrak ez ziren motz gelditu,e!", jarraitu du. "Keperin eta Patrxio eta horiek denak ferrokarrilerara, handik harriak botatzera! Automobilaren kubiartarekin egindako metro pasako tiragomak genituen, eta jo eta su, elkarri harriak botatzen han ibili ginen ba gu..."

"Eta tronpeta jota e... harri bat botatzen zutenean 'piii' tronpeta josten zuten bazijoala abisatzeko-edo", gogoratu du Joxemari Amutxastegik.

Iñakik ondo gogoan du, gainera,



Iñaki Arregi

"Martin Ondarreta handi-handia zen, eta guk denak txiki-txikiak. Hura, bada, aurrean jartzen zen, eta denak harro-harro joaten ginen Etxeberritarrekin borrokatzera".

nola makina bat aldiz galardiko sorotara joan (orain Joakin Larreta etorbidean Rebolledoko etxea dagoen malkar horretara) eta han ibiltzen ziren gaiztakerietan. "Metroko edo gehiagoko belarra zegoenean, benga 'zapaldu egin behar diagu' guk. Hara joan denak zapaldu eta baserriarra ateratzen zenean ospa korrika!"

KALETXIKI



Roke Ansa

"Garai hartan Kaletxikin hiru baserri ziren: bat Bonbonena, bestea Xapatarena —orain Berrozpeko jolaslekua dagoen horretan-, eta hirugarrena, Klementerena"

Unanueko etxean hasten zen auzoa eta Berrozpeko etxeak egiten zuen iparraldeko muga. Handik aurrera, Buruntza aldeko baserriak baino ez zeuden. Kaletxiki auzoan kokatzen zen, baita ere, Miserikordia edo ospitala, eta haren parean-edo auzoko labaderoa.

Goikoplazatik behera zegoen —San Pedro kalea izena izan du orain gutxi arte— Alberdiren etxea, gero Barriola, gero Maximino Lasarte... "A, eta Joxe Manuel Tatuluren tailerra ere bai!", gogoratu du Miren Zarragak. Denak azpimarratu dute oso harotz ona zela hura, tornoarekin lana bikain egiten zuela: "tanborrak jotzeko makilak, diabloak..."

Roke Ansaren arabera, "Garai hartan Kaletxikin hiru baserri ziren: bat Bonbonena, bestea Xapatarena ñorain Berrozpeko jolaslekua dagoen horretan-, eta hirugarrena, Klementerena. Klemente mutilzaharra zen



Kaletxiki auzoa. Orain urte gutxirarte, San Pedro kalea zen argazkian ageri dena.

eta amarekin bizi zen orain Zalakaindarrek inprenta duten horretan. Etxe hura baserri bezala erabiltzen zuten."

Berrozpeko etxepean taberna bat zegoen; Lasartartarrek ireki zuten. Beste aldeko etxean, berriz, izkina egiten Martxeliren taberna.

Tabernak baino gehiago, ordea, sagardotegiak zeuden Kaletxikin; lau behintzat bat. "Inportantena orain mojek jolaslekua duten horretan Maximinok zuen sagardotegia", kontatu digu Roke Ansa. "Baina gerra garaian", gaineratu du, "alde egin behar izan zuen eta bueltakoan ez zuen gehiago sagardorik egin. Orduan Arruarte hartu zuen sagardotegia". Denek gogoratu dute sagardotegi inportantea zela hura, jende ospetsua joaten zela bertara. "Bonbetara etort-

zen ziren ministroak, enbajadoreak eta denak joaten ziren hara", zehaztu du Iñaki Arregik.

Joxemari Olazabal: "Gure aitak kontatzen zuenez, Andoainen, garai batean, baziren hamazazpi sagardotegi, Kaletxikitik hasi eta Etxeberrietara"



Joxemari Olazabal

"Gure aitak kontatzen zuenez, Andoainen, garai batean, baziren hamazazpi sagardotegi. Kaletxikitik hasi eta Etxeberrietara"

KALETXIKITARRAK:



Roke Ansa

"Gure jefeak ziren zalakaindarrak, argi-argi. Haien esanetara aritzen ginen gu batera eta bestera."

Roke Ansa: "gure jefeak ziren zalakaindarrak, argi-argi. Haien esanetara aritzen ginen gu batera eta bestera." Eta garai hartan, antza, denak ibili ohi ziren gaiztakerietan; Kaletxikin ere bai. "Ezetz bonbila hautsi!; eta baietz!; eta han ibiltzen ginen harriak botatzen. Gero norbait etortzen zen kontuak eskatzen eta guk beti beste hark hautsi zituela esanez!"

Miren Zarraga: "Nere gizona Kaletxikin jaioa da eta hark kontatzen du nola Pagamendiko hartan Jaungoikoak zituen fruitu arboletatik lapurretan aritzen ziren, ezkutuan. Behin melokotoiak jaten ari zela ikusi omen zuen eta hasi omen zen korrika, eta nora ihes egin eta Jangoikoaren etxera bertara! sukaldetik pasa beste atetik irten eta beste arbola batean aranak jaten gelditu omen zen!"

Kaletxikitarrak oso kaletxikitarrak izan dira beti, eta orain ere hala dira. Beste auzoetan ez bezala, jende gaztearen artean bertako izaera hori gordetzen duten bakarrenetakoak dira, guk uste. Kaletxikin, zaharrek dudarik gabe esango dizute kaletxikitarrak direla andoaindarrak baino lehen; eta joera horrekin jarraitzen dute gazteek, garai batean bezala. Auzo izaera

hori Kaletxikin gordetzen da oraindik ondoen.



Kaletxikiko aldapa malkartsua.

... ETA HURRENGO ALEAN ZER:

Elizaz eta erlijioaz, horrexetaz arituko gara datorren hilabetean. Garai batean erlijioak erabat baldintzatzten zuen herritarren bizitza; gaur egungo ikuspegitik ikusita, ezin sinestuzko eragina zuen. Sakramentuek izugarriko garrantzia zuten, mezak eta jaiegunek zer esanik ez, eta bekatuak... ai bekatuak!

Horiek denei buruzko kontakizun bitxi eta xeble askoak badituzte gure koadrila osatzen duten gizon-emakume hauek guztiek. Irakurri eta ondo pasa nahi baduzu ez ezazu galdu hurrengo zenbakia.



Argi gera bedi:

Agerkari hau ez da aldizkari historiko bat, gure herriko iragan hurbileko kontakizun eta pasadizoak modu arinean gogoratzea helburu duen aldizkaria baizik. Beraz, gurean botatzen diren adierazpenak ez dira kontrastatzen; horixe baitira: pertsona jakin batzuk botatzen dituzten adierazpenak. Baina herritar guztiek jakin dezaten, berriz azpimarratuko dugu nahi dena esateko zabalik direla ateak gurean.



Manuel Larramendi
Kultur Bazkuna



Andoaingo Udaleko
Euskara Lansaila



Andoaingo Udala



Eusko Jaurlaritza

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako Sailordetzaren diru laguntzaz, Andoaingo Udalak ordaindutako argitalpena

Argitaratzaileak: Manuel Larramendi Kultur Bazkuna Andoaingo Udaleko Euskara Lansailaren ekimen eta dirulaguntzaz. **Zuzendaritza eta erredakzioa:** Jone Larrañaga. **Maketazioa:** Eva Garcia. **Argazkiak:** Udala artxiboa, La Salle ikastetxeko artxiboa eta Manu Mujika. **Inprimaketa:** Sortu grafikagintza (Zizurkil). **ISSN:** 1139-7497 **Lege gordailua:** SS-1594/98. **Tirada:** 3.000 ale.